

**2011ko uztailaren 11**

**BIZTANLERIAREN MUNDUKO EGUNA**

# Behera egin du EAEko biztanleria gazteak

## **Jaiotze-tasen eta atzerriko biztanleria gaztearen igoera, biztanleria gaztetzeko gakoak**

Biztanleriaren Munduko Eguna dela-eta, gure eremuan dagoen egoeraren ikuspegi orokorra eskainiko du Gazteen Euskal Behatokiak. 15 eta 29 urteko gazteen proportzioak behera egin duela nabarmendu beharra dago: 1996an %23,9 izatetik 2010ean %15,1 izatera igaro da. Atzerriko biztanle gazteen gorakada eta 2004tik aurrera, berriz ere, saldo begetatibo positiboak eman dituen jaiotze-tasen igoera funtsezko faktoreak dira Euskadiko piramide demografikoak gazteen oinarria handitu dezan eta egitura hobea izan.

Informazio demografiko fidagarria funtsezko tresna da politika publikoak taxutzeko; hori dela-eta, aurtengo Biztanleriaren Munduko Egunaren leloa “Zeu ere kontuan” da. Nazio Batuen Idazkari Nagusi Ban Ki-moonen hitzetan, *“Kontatuak izatean, ikusgarri bilakatzen gara. Garrantzi bereziko da hori emakumeen eta gazteen kasuan. Generoaren eta adinaren arabera sailkatutako datuek emakumeen eta gazteen eskubide eta premiei erantzuteko ahalmen handiagoa eman diezaiekete nazio-mailan erabakiak hartzeko ardura dutenei, eta gizarte bidezko eta oparoagoa eraikitzen lagun dezakete”*.


Euskal Autonomia Erkidegoko udal-erroldean, 2.178.339 biztanle zeuden 2010eko urtarrilaren 1ean, 1996ko maiatzaren 1ekoan baino %3,8 gehiago. Zenbaki absolututan, 80.284 lagun gehiago dira. EAEn bizi diren amengandik jaiotako ume bizien eta EAEn erroldatutakoetatik zendutakoen arteko kenketa, hau da, saldo begetatiboa, ordea, negatiboa izan da: 1.600 pertsona gutxiago.

Jaiotze-tasa baxuko testuinguru demografiko honetan, immigrazioa biztanleria hazteko faktore nagusietako bat izan da. 2010 hastean, atzerriko biztanleak Euskadiko biztanleen %6,4 ziren, 1996ko maiatzean baino askoz ere gehiago (garai haietan presentzia kuantitatibo urri-urria zuten, %0,6koa).


Euskadiko egitura demografikoari dagokionez, nabarmendu beharreko bereizgarrietako bat zahartze-prozesua da. Euskadiko udalerrietan erroldatuta dauden 64 urtetik gorakoak %19,2 dira. Horrek esan nahi du Zahartze Indizea %29,7 igo dela 1996tik hona. 65 urteko eta gehiagokoan gorakada hiru lurraldeetan gauzatu da, baina ez modu berean: handiagoa izan da Araban (%42,3ko igoera), Gipuzkoan (%28,8) eta Bizkaian (%27,6) baino. Nolanahi ere, Araba da Zahartze Indizearik apalena duen lurraldea (%17,3, Bizkaia eta Gipuzkoako %19,8ren aldean).

Haatik, arreta gazteengan jarrita, azpimarratu beharra dago 15 eta 29 urte bitarteko kohorteak kopuru handiak galdu dituela 1996tik 2010era: 177.000, hain zuzen ere. Horrek %35eko jaitziera egon dela adierazten du. Atzerakada hori 1980 eta 1995 artean jaiotze-tasak arian-arian jaitzi izanari egozten zaio, batik bat. Horren eraginez, gazteen taldera sartutakoan kopuruek ezin dituzte irtendakoen kopuruak —30 urtekoenak— konpentsatu. Hori dela-eta, Gazteen Indizeak, hau da, 15 eta 29 urte bitartekoek biztanleria osoan hartzen duten proportzioak, behera egon du nabarmen, 1996ko %23,9tik 2010eko %15,1era.

Lurralde historikoen arabera, Gazteen Indizearik garaiena Arabak du (%16); Bizkaiak gero (%15,1), eta, azkena, Gipuzkoak (%14,8).



Era berean, erroldatutako gazteen kopuruek behera egin dute, EAEko eskualde guztietan.



Gazteen Indizea gehien murrizten ikusi duten eskualdeak Markina-Ondarroa eta Donostiadea izan dira. Hala ere, ez dira horiek 2010eko Gazteen Indizerik apalena dutenak, Arabako Mendialdea, Arabako Ibarrek eta Gorbeia Inguruak baizik. Arabako Mendialdearen marka negatibo hori %45,6ko jaitsieraren ondorioa da: gazteen kopurua ia erdira jaitsi da 1996tik 2010era. Gazteen Indizerik garaiena duen eskualdea, aldiz, Arabako Lautada da (Vitoria-Gasteiz barne hartzen duena).

Eskualde bakoitzeko gazteek EAEko guztizkoan duten pisu erlatiboari dagokionez, adierazi beharra dago Bilbo Handiak Euskadiko gazte guztien %40,1 hartu zituela; Donostialdeak %14,3 eta Arabako Lautadak (Vitoria-Gasteiz barne harturik) %12,7. Hiru eskualde hiritartuenek Euskadiko gazte guztien %61,7 hartzen dituzte. Gainerako eskualdeek, banaka, ez dute, inola ere, gazteen %5 ere biltzen.

EAEen erroldatutako atzerriko biztanleen artean, ordea, Gazteen Indizea biztanleria osoarenaren halako bi da, eta %32an kokatzen da. Adinaren arabera egiturari gaztetzen laguntzen dio horrek, eta atzerriko biztanleak gizarte gero eta zahartuagoaren ekonomia- eta gizarte-ondorioak leuntzeko funtsezko faktore bilakatu da.

Urteotan, atzerriko gazte etorkinen ehunekoak gora egin du nabarmen: 1996an, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen %0,7 ziren eta 2010ean, %13,5. Gorakada %1.000koa izan da, aztertutako aldirian.

Atzerriko gazteen ehunekoa Araban areagotu da gehien eta, izatez, bertan dute pisu erlatiborik handiena. Euskadiko udalerrietan erroldatutako atzerriko gazteen jatorrizko herrialdeei dagokienez, honako hauek dira ohikoenak: Errumania, Maroko, Kolonbia eta Bolivia.

Atzerriko biztanle gazteen gorakadari eta, 2004tik aurrera, jaiotze-tasetan egon den igoerari esker, saldo begetatiboak positiboak dira, berriro ere. Horiexek dira, hain zuzen ere, Euskadiko piramide demografikoak gazteen oinarria handitzeko eta egitura hobea izateko funtsezko faktoreak.

estructurada.